

**2011/2012ko LEKUALDATZE-LEHIAKETAK**

KIDEGOAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEAK, LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK ETA MAISU-MAISTRAK.

Aurreikuspenen arabera, datorren 2012ko urtarrilaren 10ean argitara emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aipatutako kidegoetako funtzionario irakasleen artean lekualdatze-lehiaketak deitzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko abenduaren 16ko agindua, kontuan hartu beharreko ondorengo berrikuntzekin:

1º.- Parte hartzeko eskaera:

Irakaslegunea ingurunean dagoen eskaera elektronikoa betez izango da lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskaera formalizatzeko modu bakarra. Eskaera elektronikoa horretara, behar diren klabeekin, Internet-eko helbide honetatik: <http://www.irakasle.net>, sartuko da eta, helbide horren barruan, ondoren adierazten diren metodoen bidez:

-Irakasleen posta elektronikoa (irakasle.net) erabiltzailea eta pasa-hitza edo, izan ezean,

-NANaren (letrarekin) eta irakaslegunea ingurune horretara sartzeko pasa-hitzen bidez.

Pasahitza gogoratu ezean, aipatutako helbidean “pasa-hitza berreskuratzeko zerbitzua” duzu.

Aurreikuspenen arabera, 2012ko urtarrilaren 11tik 27ra bitartekoa, biak barne, izango da eskaerak bete eta dokumentazioa aurkezteko epea.

Praktiketako funtzionarioek EZ dute merezimenduak egiaztatzen inolako dokumentaziorik aurkeztu behar, praktiketako funtzionarioaren izendapenean agertzen diren ordenaren arabera hartzen baitute parte.

2º.- Aldez aurreko hitzordua:

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko, Internet-eko helbide honetan: <http://www.irakasle.net> >Lekualdatze-lehiaketa->”Dokumentazioa entregatzeko aldez aurreko hitzordua”, eskatu beharko da, aldez aurretik, hitzordua. Hitzordu hori 2012ko urtarrilaren 9tik aurrera (**aurreikusten den data**) eskatu ahal izango da.

3º.- Aplikazio informatikoaren gida:

Prozesu honetan errazago parte hartu ahal izateko, parte hartzeko eskaeraren on-linaren bidezko grabazioari buruzko gida bat eta prozesua behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen den informazioa argitara emango dira Internet-eko helbide hauetan: <http://www.irakasle.net> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>.



4º.- Merezimenduen baremoa:

Administrazio-tramiteak gutxitu eta sinplifikatzeko asmoz, 2010eko azaroaren 16ko aginduaren bidez (2010eko azaroaren 22ko EHAA) deitutako 2010/2011ko lekualdatze-lehiaketan parte hartu zutenek ondorengo aukerak izango dituzte:

- a) **2010/2011ko lehiaketaren puntuazioarekin jarraitzea** aipatutako deialdiaren I. eranskineko 2., 3., 4.3., 5. eta 6. ataletarako.
- b) **Barematze berria**, aipatutako deialdian parte hartu ez badute edo, parte hartu arren, aipatutako atalen barematzearekin ados ez badaude; azken kasu honetan, "barematze berria" aukera markatu beharko dute eskaeran eta atal guztien dokumentazioa aurkeztu beharko dute, berriro baloratzeko.
- c) **2010eko abenduaren 14tik aurrerako merezimenduak gehitzea.**
2010/2011ko lehiaketan dagoeneko barematu direnei merezimendu berriak gehitu nahi badizkiete, betiere atalean edo azpiatalean puntuazioaren gehienezkoa lortu ez badute, "2010-12-14tik aurrerako merezimenduak gehitzea" markatu beharko dute eskaeran eta lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak bukatu ondoren hobetutako merezimenduak (2010eko abenduaren 15etik aurrerakoak) besterik ez dituzte aurkeztu beharko.
2010eko abenduaren 15a baino lehenagoko beste merezimendu batzuk gehituz gero, EZ dira barematuko.
2010eko abenduaren 15a baino lehenagoko merezimenduak barematzea nahi badute, "barematze berria" atala aukeratu beharko dute eta merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztia berriro erakutsi beharko dute.

2010/2011ko lekualdatze-lehiaketan parte hartzen dutenek, azpiatal bakoitzean lortutako puntuazioak gogoratu nahi badituzte, kontsultatu ahal izango dute Sailaren web orrian, 2011/2012ko lekualdatze-lehiaketaren atalean, horretarako sortu diren lokarrietan.

5º.- Maisu-maistren kidegoko espezialitateak onartzeko:

Gaur egun gaituta ez badaude baina hainbat baldintza betetzen badituzte espezialitate batean zeinaren bidez lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi duten maisu-maistrek edo 1594/2011 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako ezohiko epearen erabilera egin nahi dutenek, espezialitatea onartzeko eskabidea Agindu honen hamazazpigarren oinarrian aurreikusitako epean aurkeztuko dute. Espezialitatea onartzeko baldintza horiek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapetan beren funtzioak betetzen dituzten Maisu-maistren kidegoko irakasleen espezialitateak xedatzen dituen azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuaren eranskinean ezarritakoak izango dira. Eskabidea Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan egingo da, dagokion egiaztatze-dokumentazioaren batera. Eskatutako espezialitate bat edo batzuetan parte hartzea onartzeko dagokion espezialitatea egiaztatuko da.

**GARRANTZITSUA**

Kontutan hartu behar da merezimenduak justifikatzeko dokumentazioaren entrega eta on-line-ren bidezko eskaeraren idazkia, beteta, 2012ko urtarrilaren 11tik 27ra bitartean **(aurreikusten diren datak)** egin behar dela, dokumentazioa entregatzeko aldez aurretik eskatu behar den hitzordua hartzeko eskaera betetzearen zain egon behar ez den arren (aurretiko hitzordua eskatzeko aplikazioa 2012ko urtarrilaren 9tik aurrera irekita egongo da).

Aplikaziora sartzeko erabiltzailearekin edo on-line-ren bidez parte hartzeko eskaera grabatzeko prozesuarekin gerta litezkeen intzidentzia teknikoak garaiz konpondu ahal izateko, funtsezkoa da, gogoratu ezean, erabiltzaile eta pasa-hitzaren berreskurapena, baita eskaeraren grabazioa ere, azken unerako ez uztea.